

# 49.

**UDAKO  
IKASTAROAK**

**#ElkarEkin**

[www.ueu.es](http://www.ueu.es)



**JARDUNALDIA IRUÑEA, 2021-06-29/30**

# Udako Bertso Eskola



ematen la. zatiak zoru



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Mikel Laboa  
Katedra



**bertsozale**  
elkartea



**ueu**

udako  
euskal unibertsitatea

# EGITARAUA

## EKAINAK 29

10:30-11:30 *Hainbat bertsoaldi eztabaidagai, genero-ikuspegitik*  
tailerra. Ane Labaka Mayo

11:30-12:15 *Bertsolarien kantaeraz.* Maddi Soroa Navarro

12:15-12:45 Pausa. Kafea eta pastak

12:45-14:15 *Bat-bateko bertsoen kantaera lantzeko* tailerra. Maddi Soroa Navarro

16:00-17:00 *Agurraren aurretik.* Andoni Egaña Makazaga

17:00-18:00 *Gaiak, egitura eta aurkezletza: Nonbaitetik abiatu nonbaitera heltzeko.* Maite Berriozabal Berrizbeitia

18:00-19:30 *Bertso saio baterako gaiak sortzeko* tailerra. Maite Berriozabal Berrizbeitia (gai eta ariketak biharko saioan baliatuko dira)

## EKAINAK 30

10:15 Ongietorria

10:30-11:15 *Prentsa historikoko hari muturrekin bertsolaritzaren historia soziala ehuntzen.* Antxoka Agirre Maiora

11:15-12:00 *Bertsolari gazteen mugimenduak: Hamaika Bertute.* Amaia Agirre Arrastoa

12:00-12:15 Pausa. Kafea eta pastak

12:15-13:00 *Taldean bakarka. Bakarkako bertsoaldien prestaketa.* Alaia Martin Etxebeste

13:00-14:30 *Bertsolariaren presentzia ariketa praktikoak.* Manex Fuchs Castagnet

17:00-18:30 Bertso saioa

Bertsolariak: Haizea Arana, Oihana Arana eta Aner Peritz. Gai-jartzaile: Udako Bertso Eskolako ikasleak. Aurkezle: Mikel Urteaga

*\*Saio irekia, aretoko 60 lagunentzako tokia bete arte. 16:30etarako gerturatzea komeni da.*

18:30 Ikastaroaren itxiera



# SAIOEN LABURPENAK ETA DINAMIZATZAILEAK

*Hainbat bertsoaldi eztabaidagai, genero-ikuspegitik*

Ane Labaka Mayo

**Tailer parte-hartzaile honetan, genero ikuspegia izango da ardatz abstraktutik konkretura jauzi egiten ahalegintzeko. Horrela, ikuspegi honetatik zer aztertua izan dezaketen hainbat bertsoaldi hartuko dira abiapuntutzat, eta, galderen bidez akuilatuta, bertsoaldi hauen inguruko talde eztabaidak gidatzea izango da helburua.**

Bertsolaria eta Txakur Gorria Sormen Kolektiboko kidea da. Euskal Ikasketak egin zituen Gasteizen eta, ondoren, Gizarte Antropologia eta Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrak Donostian eta Leioan. Genero-ikuspegia eta bertsolaritza uztartzen dituzten hainbat ikerketa egin ditu, batik bat, umorearen ingurukoak. *Algara mutilatuak*. *Umorearen ahobikotasunaz*, *feminismotik* argitaratu berri du, Lisipe bildumaren baitan. *Erradikalak gara* eta *Erradikalak ginen* ikuskizunaren sortzailea ere bada, Beatriz Egizabalekin batera. Ahalduz Bertso Eskolako kidea da.

*Bertsolarien kantaeraz | Bat-bateko bertsoen kantaera lantzeko tailerra*

Maddi Soroa Navarro

**Bertsoaren osagai garrantzitsuena testua dela argi dagoen arren, hori kantuz ematen da beti. Bertsolariak arlo horretan nolako beharrak dituen identifikatu du Soroak, haien beharretara egokitutako musika prestakuntza bat proposatzea xede edukita. Hitzaldiaz gainera, tailerrean, kantaeraren konpetentzia arloan teorikoki zehaztutako zenbait deskribatzaile praktikara eramateko proposamena egingo da.**

Lekunberrikoa da. Herriko Aralar Musika Eskolan hasi zituen musika ikasketak eta Pedagogia espezialitateko goi-mailako ikasketak amaitu zituen Musikenen. Ohorezko Matrikula eta Donostiako Orfeoia-Musikene saria jaso zuen *Bertsolariaren formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko konpetentzia arloak* bere ikasketa amaierako ikerlanak. Egun, Musika Arloko ikerketan Masterra egiten ari da Errioxako Nazioarteko Unibertsitatean; hain zuzen, Master honen amaierako ikerlanean dabil murgilduta, bertsolarien kantaerari buruzko ikerketan buru-belarri lanean.

*Agurraren aurretik*

Andoni Egaña Makazaga

**Oholtzan ez da hasten bertsolariaren lana. Badira lehen agurrak aurretikoak; eta beti desberdinak izaten dira. Bakarrik heldu zaren kanturako lekura edo beste bertsokideren batekin egin duzun bidaia; antolatzaileak aurrez aurre lehendik ezagutzen dituzun ala ez; zein testuinguru aurkituko duzun badakizun ala ez; kanturako baldintza egokiak aurkitu dituzun ala ez; hala behar balitz baldintza horiek moldatzeko erarik baden ala ez... Gurea bat bateko jarduna denez, kontrola daitekeen oro kontrolpean edukitzea komeni izaten da.**

Zarauzko bertsolaria, eta Euskal Filologian lizentziatua. Kultur sustatzaile bezala aritu zen Gasteizko Udalean. Lanpostua utzi zuen sorkuntza lanetan aritzeko: bertsolaritzan, kazetaritzan, gidoigintzan, literatura idatzian... Diskorik ere argitaratu izan du. Euskal Herriko bertsolari txapelduna izan zen 1993, 1997, 2001 eta 2005ean. Bertsolari bezala ez ezik, ikertzaile, aztertzaile eta teorizatzaile moduan ere aritu da. Azpimarragarria da bat-bateko bertsoa sortzeko prozesua azaltzeko eta ezagutarazteko egin duen ekarpena.

*Gaiak, egitura eta aurkezletza: Nonbaitetik abiatu nonbaitera heltzeko | Bertso saio baterako gaiak sortzeko tailer praktikoa*

Maite Berriozabal Berrizbeitia

**Bertso saio batean gaiak jarri behar ditugunean nondik hasi? Gai on bat zer da? Zer dakigu aurretik?... Bertso saio baten egitura eta gaiak erabakitzerakoan burutik pasatzen zaizkigun horien inguruan hitz egingo dugu. Saio motak, gai motak edota ariketa motak izango ditugu hizketagai, eta horrez gain, gai-jartzailearen sormen lana eta aurkezle lana ere aztertuko ditugu.**

**Tailerrean, guztion ideietatik abiatuta, bertso saio baten egitura eta gaitegia diseinatuko ditugu.**

Berriztarra da, eta Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatua. Egun, Azkue Fundazioan ari da lanean euskararen sustapena helburu duten ekimenen kudeaketan. Bertsogintzan, gai-jartzaile lanetan aritzen da, bai txapelketetan eta baita plazan ere. Egun, askotariko saioetan aritzen da gai-jartzaile gisa, eta gai-jartzailetzari loturiko zenbait ikastaro eta hitzaldi ere eskaini ditu.



# SAIOEN LABURPENAK ETA DINAMIZATZAILEAK

*Prentsa historikoko hari muturrekin bertsolaritzaren historia soziala ehuntzen*

Antxoka Agirre Maiora

**Prentsa historikoan topatutako testu esanguratsu eta deigarri batzuk baliatuko dira bertsolaritzaren historia sozialaren ardatz batzuk azaltzeko. Historiari begiratuko zaio fenomeno soziokultural gisa bertsolaritzak bizi izandako garapenaren singularitasuna uler dezagun.**

Zumaiarra da eta Zuzenbidean eta Kazetaritzan lizentziatua. Baleike, Gaztezulo eta Bertsolari aldizkarietan egin du lan kazetari gisa, eta azken honen zuzendaria da 2013tik. 2008tik UPV/EHUko Kazetaritzako irakaslea da eta bertan doktoretza egin berri du bertsolaritzaren historia sozial eta mediatikoari buruzko tesiarekin. Tesia Euskaltzaindiak aurten argitaratuko du liburu gisa. Agirre hogeitun artikulu akademikoren egile da, eta hogeitik gora kongresu akademikotan parte hartu du bakarka nahiz HGH (Hedabideak-Gizartea-Hezkuntza) ikerketa taldeko kide gisa.

*Bertsolari gazteen mugimenduetan: Hamaika Bertute*

Amaia Agirre Arrastoa

**Hamaika Bertute zortziko txiki batean bigarren puntu erdian erabiltzen den makulu edo klitxe bat gehiago da. Hamaika Bertute kolektiboa, berriz, autogestioan sinesten zuen, eta kanturako gogoan zuten bertsolari gazteen kolektiboa izan zen. Dozenarako arrautza bat falta zuen kamiseta soinean, antolatzaile potentzialei bertso-saioak antolatzeko aukera eskaini nahi izan zien Hamaika Bertutek. Parte-hartze orekatua eta kanturako baldintza duinak ziurtatzea zen unean-unean telefonoa eskuan zuenaren ardura: *“Bai, esan?”***

Villabonarra da eta Euskal Filologian lizentziatua. Urte askotan hainbat bertso-eskolatan irakasle lanetan aritua. 2003an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan finalista izan zen, eta behin baino gehiagotan kantatu du Euskal Herriko finalerdietan. Hitzetik Hartzera telebista programan erredaktore lanetan aritua. Egun, Hezkuntza Arautuko *Ahozkotatua eta bertsolaritza* proiektuko irakaslea da.

*Taldean bakarka. Bakarkako bertsoaldien prestaketa*

Alaia Martin Etxebeste

**Bertsolariaren lana bakarkakoa bezain taldekoa da, baita prestakuntza bera ere. Bakarkako ariketa izango da ziurrenik bertsolariek elkarren artean desberdinen eta bakartien lantzen duten ariketa. Alaia Martinek berak bizitako intuizioak eta esperientzia partekatuko ditu.**

Oiartzuara eta bertsolaria da. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua da, zinemagintzan eta irratigintzako espezializazioan. Hainbat hedabidetan iritzi emaile bezala jardun du. Telebistan eta irratan gidoigile bezala aritu da, baita kazetari eta esatari lanetan ere. Gainera, Bertsotale Elkartearen Gu ere bertsoaren proiektuan irakasle izana da.

*Bertsolariaren presentzia*

Manex Fuchs Castagnet

**Ariketa edo joko batzuen bitartez, bertsolariaren esku dauden adierazpen mota ezberdinak aztertu ditzagun. Nola indartu hitzaren irismena, bertsoaren funtsa galdu edo hondatu gabe? Zertan gauzatzen da presentzia? Sormenaren hiru muskuluak mugimenduan jarriko ditugu: ahotsa, gorputza eta irudimena. Eta bat-batekotasunean gerta daitezkeen istripuak bertsolariaren alde bihurtzen ahaleginduko gara.**

Antzezlea, joko eta taula zuzendaritzan ere aritua. Kasik 25 urtez Frantziako alde guzietan ibili ondoren, 2017an AXUT! kolektiboa sortzen du, Ximun Fuchsekin batera. Aktore lana espazio ezberdinetan garatu du: antzokietan, plazetan, eta kamera aurrean. Idazketa prozesuetan ere parte hartzeko ohitura du. Badu dozena bat urte elkarlanean diharduela hiru alorretan: euskal sorkuntza, arte hezkuntza eta herrigintza.

